

1

OKILOMENDI, jaun mera.

(Pièce basquen en I acte)

Personnages: Mera: Maire, 50 ans, corpulent et bête.

Anna: Sa femme... Sèche et méchante.

Mihiku chaharra: vieux docteur aristocratique.

Santcho: Cantonier, verbeux, buveur.

Ostalera: Aubergiste, lourd faisant le malin.

Kukutchar: vieux paysan, nerveux et méchant.

Décor : Un intérieur quelconque.

Mera: (Il fait tremperette d'un doigt dans un verre d'eau. Il appelle)

Anna, o Anna.

Anna: Apparaissant) Zer da?

M. Erhi hau aski bustia da engoitik... Zato orhatzarekin.

A. (Allume une chandelle) y stérilise une aiguille et se met à opérer)  
Ba, ez duzu deus handirik... Hor beha eta beha hola artzeko zure erhi ~~mar~~ horri.

M. Emeki gero... Hor sista sista ari gabe oihal falsatzen bezela.

A. Baietz ba, gizona... Ha, gizonak denak berdinak zarezte... Denak berdin putrunak...

M. (Tandis qu'elle opère) Aditu duzia phitsik ithurri hortaz? Ba omen dira  
ene Kontra direnak, ithurri berri horri eliza sahetsean egiten dualakotz  
Uste dute gibelaraziko nautela... Ez dute ezagutzen nor duten beren  
mera berria... Ni ba ni... Joannes Okilomendi... Erakutsiko diotet hor  
zomeiti zer den mera bat herrian, eta zer den Merako karguaren bethe-  
tzea... Hai, emaztekia... Emazu ba emeki...

A. Ba, aski zinuen eskua hola ez mugitzia, zure mera eta merakuarekin...  
Emazu erhi hori argitarago...

M. (Grimaces et gronements)

A. Hauche, zer arno usaina duzun... Zuk arnoa edan duzu oraino nombeit.

M. Arnoa edan ba... Zera... Zuk gakhoz eman hartarik... Ur eta bikarbonata  
zikin hortarik ba, edan dut... Phu... Mihiku zozua... Gibela eri duala,  
eta hortarik edateko... Eta hortarik bakharrik. ~~Ura eta bikarbonata~~...  
Phu... Phentsatzeak berak bihotzdarra emaiten daut. Hai, hai, emaztea...

A. Ez dakit zertarik edaten duzun, bainan ez da bethi erremedio hori  
botoila hortan, biziki beheititzen...

Ez bazinu ~~mar~~ heimbeste arno edaten, ez litazke hola zure chichtako  
guziak karramintchuko.

M. Ai, ai...

A. Badut, gizena, badut... Hori huna nun duzun. Zer arkumak othe tchar  
batentzat... Hori... Bustiazu erhia berritz ur hortan.

M. Bizar egiteko puskak ~~mar~~ ere behar ditut.

A. Tenore huntan bizarra...? Norat abian zira?

M. Itzuli bat egin behar dut plazan gaindi... Ikusi behar dut zer dioten  
ene ithurriaz... Santcho kantonierari errana diot, aratsaldeko bietako  
lot dadien ithurriaren zihoa egiten, han eliza sahetsean.

A. (Lui attachant la serviette autour du cou) Ba... Zure ithurriarekin...  
Aitzaki ederra duzu segurik, berritz ere ostaturat joaiteko ~~mar~~

M. Ba, ostaturat, bat... Mihiku chaharrak han aurkhitzeko gero... Ostaturat...  
(Il aiguise son couteau)

A. Eta, nun egingo duzu gero ithurria? (Elle prépare le savon)

M. Han, eliza sahetsean, Ama Birjinaren aldarearen eskuakdetik.

A. Ha... Numbeitit ere... Egiten ahal zinuen ba, elizatik urruntchago.

M. Zer zare, zu ere ene kontra?

A. Ba, hori... Ez dakit ba... Hil her iak ere han-eta... Proachionek eta  
hilak handik pasatu behar eta... ~~mar~~ Bektit ba...

- 2
- M. Berdin du...Nahi duzuena erranik ere...Zuk eta bertzek...Ithurria han izanen da...Han...Eta erakutsiko diotet Okilomendik erran~~q~~,errana dela gero.
- A. (Regardant par la fenêtre) To, Mihikua...Mihiku chaharra heldu...Yes... Zertarat heldu da hori? Errana zuen ba, sendatua zinela... Ez zela gehiago jinen... (On frappe) Ekarzu laster puska horiek, gorde ditzadan. Idek-ozu. (Elle disparaît)
- M. (Ouvrant) To, agur Jaun Mihiku ~~chaharra~~. Zerk zabiltza hemen?
- MC. Ba, ez nuk hiretzat jina... Bainan, gauza batez oharturik jina nuk. Pasatzian behar hintuala abisatu...
- M. Zer da, Yar zaite...
- MC. Ez, ez nuk batere jarrigo... Hor, ohartu nuk, Santcho kantoniera, ari zela zilo egiten, elizaren ondoan, hil herriari hurbil... ~~Eta~~ Eta galdu zioiat, zer ari zen han... Eta erran daitak, hik manaturik, ithurri baten ~~xma~~ ziloa egiten ari zela... Edanchkoa zela ere iduritu zautak, bere usaia ez galtzeko... Eta zer nahi erranik, handik ~~z~~ igorri diat... Errak, ez ahal duk hik manatu, han ithurri baten muntatzea.
- M. Zertako ez?
- MC. Muthikoa, ez duka ikusten han kasik hil herritan hizala... Hala zer duk? Herri guzia pozoinatugoduka... Zer uste duk, hola edan ditakela hil hezurrez hazia den uretik? To, gerta lukek ~~z~~ politik...
- M. Ba, hori... Ez dakit ba... Nehork ez daut, orai artio, holakorik aiphatu.
- MC. Hori, muthikoa, gauza ageria duk... Horko ura, hil gachura izanenduk... Hire egitekoa duk, bainan toki hortan ithurribat... Horrek ez dik kanerorik... Eta gibel hori, nola duk, nik emanikako erremedioarekin?
- M. Hobeki, hobeki, jaun Mirikua...
- MC. (Regardant la bouteille) Hum... Ez duk biziki edan ur hortarik... Hartzen ahal duk basotarat bat ona gero, jan ondo guziez... Eta utz-aizkik gero arno eta gaineratikoak beregisa...
- M. Uzten ditut, uzten ditut, Jaun Mihikua... Eta beharko oraino dutan emaztearekin.
- MC. Hire emaztiak horten arra zoina dik... Bon... Erranak erran... Ihauk ihusak, eta aratsalde on... To.
- M. Ba, aratsalde on, Jaun mihikua...
- M. (Seul) Debruia, ontsa erremedio zikin hori eni edanarazi beharrez ari zaizte... Beheiti-araziko diat ba botoila hori, beheititu behar bada... (Il en verse dans un pot de fleurs) To, edazak hik ene partia... Phu zikina... Beharrik baitut, hortchet, gordegailuan, hori baino hobeagorik (Avec précaution, il retire une bouteille de vin, cachée dans une botte et ~~xx~~ en boit...) Hau ba, hau duk egiazko erremedioia... Hunek bederen barnia puchka bat hunkitzen daitak... (Il entend du, bruit et vivement range sa bouteille de vin).
- A. (Rentrant, s'aperçoit de quelque chose d'insolite) Yes... Zer ari zinen hor?
- M. Phisik, phisik... Ene ihiziko zapeta hauieri beha... Hauk ere, ez dituala aspaldian soinian ezarri... (Elle n'a pas l'air convaincu.)
- A. Mihikua laster joan da... Zato oihala lephotik esteka... Hum.. Erremedio botoila horri ahatik tanka bat eman diozu...
- M. Bakia emazu hori... Mihiku debruia... Edateko eta edateko.. Phu.. Ekhazu Bizar egitekoak.
- A. Han ditutzu puskak, suillardan.. Aski duzu ~~b~~izarra han berian egitia. Norbeit heldu bada ere, trankilago izanen zira.. (Il sort).
- A. (Seule)-(Mimique.. Elle découvre la bouteille de vin et la remplace par la bouteille ~~xxxix~~ de bicarbonate.) Gizonak ba, gizonak... Politak zarezte. Nindagon ba nundik othe zuen arno usain hori... Gaichoa.. Nahi nuke ikusi zer bisaia eginen duen,

bertze zuri hortarik turta turta edanen duclarik.

(On frappe)...To,Santcho...kantoniera..(Elle pèrle à son mari)Errazu,Joannes,Santcho hor duzu...

M. Sar-araz-szu..

A. (Avisant la bouteille de vin)Hau behar nuke numbeit gorde(Elle la laisse sur place)Nor da hor?

S. Santcho da hemen..Idek hortik..

A. (Ouvrant)Zer..Zu hemen,tenote huntan?Zer egin zare?Berritz ere lanarekin samurtu?

S. (Entrain,svec une musette contenant son goûter et une pelle)..Hop,barkhatu,andere merasa..Nik ez dut zuekin phisik nahi..Ni ez naiz zure meneko, bainan jaun mereren meneko..

A. Zu,Jaun mereren meneko zira,bainan sala hau nere ~~hau~~ meneko baita,pala hori utziko duzu kampoen.

S. (Obeissant) Bon,ontsa da...Bahakit,bahakit ez naizela on saluna ziratueteko...Zer zira beldur ene galtza zikinekin,zure kadirak zikinduko dituala. Ez beldur izan..andere merasa..Ez ditut zikinduko...Jarriko naiz lurrian Lurreko taula bederen aizu izanen ~~ez~~ ahal dut...Ez dautzut edaterat ere galdatuko...Bejakit berdin ez dautasula gogotik emanen...Badut edatekoa nihaurrek...Ba,huna,hemen...(Il boit) On daitzula..Eta ogia eta gasna ere baitut hemen;gose naizelarik jatako.

M. (Apparaissant à moitié rasé)..To,hi hiza Santcho,holako elhasturietan...  
(A sa femme)Horren gatik,bizar ondar hau,hemen berian kenduko dut...

(Il va chercher glace et rasoir)

A. Ontsa da..Zure botoila erremedio hau kendu-eta,zure puchkak hemen emanen ditut.

M. (Rentrant)Bon,ontsa da..(Anna s'exécute et sort) (Se rassent)Ta,Santcho, zertarat,jina hintzen?

S. (Mangeant du pain et du fromage) Jaun Mera...Jaun Mera,nahi nuke jakin nork manatzen duen herri huntan.

M. Hi,herriko langilea,ez dakika nork hauen manatzen.

S. Batere ez dakit gehiago...Kampoan,lehenik zuk eta gero mihiku chaharra jin zaizte ene manatzerat..Hunat sartu-eta berritz,zure Madame hori ukhan dut manatzale.

M. Zer erran dauk mihiku chaharrak?

S. Ba,hori..Ithurrik han ez egiteko...Hango ura pozoindatus dela...Nola erran daut ba...Ha,ba...Hango ura,hilen hezurretakik jalikako gazura dela Phu,zikina..(Il boit à son vin) Okhaztatzen ere nu pentsatziak berak,zer zer phestheria jaliko den phuzu hartarik.

M. Bon,ontsa duk,Santcho..Mirikuak arrazoina dik..Eta hortako,hasi putzu hura tapatuko duk,eta bertze putzu baten zilatzen lotuko haiz,bertze toki batian..

S. Bertze toki batian?Nun?

M.Kukutcharrek baitik hor bshatze ttipi-bat,hutsa beiratzen duena,hartan ~~zutu~~ lotuko hiz zilo egiten...Haren erdi erdien.

S. Plaza hegiko baratzian?

M. Han berian..Baratze hura herriko lurrian duk gero..Kukutcharrek,ene aintzineko merarekin ontsa baitzuian,baratze hura bere meneko hartu zian. Eta geroztik,han zeukak,iduri beria...Nehori phits arrandarik herentzet eman gabe...

S. (Se frottant ~~isszminni~~ la tête en tous sens)...To,orai,orai ikusiko ditugu chimichtak eta ortziak.Azken bozeten,ni zure alde mintzatu-eta,zaflako bat eman baitzautan Kukutcharrek,oraikoan ikusten badut,hobeko dut konttrizionezko akta egitia.

M. Ez duk deusen beldurrik...Emaitzik denak ene gain...Eta errok,nik manaturik hizala han...Eta ez bazeko untsa johan,jin dediela ene ganat...

S. Ba,ba..Ez da duderik hala erranen diotala...

- 4
- M. Bon, orai, hail lenerat...
- S. (Sortant) zeruko Jauna, galdatzen dautzut egun aratsean, ene burus oraino bi beharri handi hauien artien izan ditzadah... Zeren eta, horietarik bat Kukutcharrek eskuratzen badu, haren dituen zainekin, beharririk gabe gelditzen nuk... Ez bada oraino ausikiz lotzen... Ah, la, la, la... (Il sort)
- M. (Seul) (Il range ses affaires à barbe). Orai komprenituko ditek herri huntan, orai, nor den Joannes Okilomendi... Lehengo, mera ilheunarekin, sobera bakhotchak nahi zuena egiteko usaia hartua zuten... Azken mintzo zenak, haren zuen bethi arrazoin... Holakorik ez enekin... Kukutchar? Ni Kukutcharren beldur? Ez da behin ere okhilos kukuaren beldur izan. Eta hambat gaichto harentzat... Aski zuen bere burua ez hola erakustia ene kontra, azken bozeta...
- Hum... zintzurra ere shortia diat... Arno chorta bat ez ki likek kalte... (Il regarde autour de lui, prend la bouteille dans la botte et boit un boncoup... Affreuses grimaces) Phu... Phu... Zer da zikurkeria hau botoila huntan... Ha, debruena figura... Gizontsa deubrua... Atcheman dik ene gorde-gailua... Phu... Emaztea baino debruagorik ba othe da gero... (On frappe) To, norbeit atean, azen ontzoko... Bon, dagotzila denak hola hola... (Il remet la bouteille dans la botte)... (Vers la porte) Aintzina, Aintzina... (Entre l'aubergiste) To, ostalera... Nere chorte lagun gaizua hi hintzana... Nun habile hemen... Yer adi, yar...
- OS. (Debout et solennel) Joannes, kontent nuk... kontent nuk hitaz... Azkenian badiuk mera bat herrian... Eta trinkatu behar dugula elgarrekin, buchundatu batekin jina nuk... Baituka bi baso...
- M. Ba, batiat hor (Il les porte sur la table)
- OS. Ha, debrua, buchona jalitzako ahantzi diat...
- M. Ba, hein hori ba ahal diuk... (Il appelle)... Anna, ekazu buchona jalitzeko bat hunerat...
- (Ils s'assoient)
- OS. Ba, kontent nuk ithurri hortaz... Ikhusi diat Sentcho zilo egiten hasia zela... Hor behar den tokian duk.
- A. (Entrant) Agur Ostalera... Hemengo aldi...
- OS. Ba, ba... Bi elhen egiterat jina... Ha, hor duzia buchona jalitzeko... Hori botoila, jali-azu zuhurrek.
- M. Bahakik, duderik gabé, Kukutcharren baratzean egiten duala ithurria.
- OS. (Vivement) Kukutcharren baratzean... Ez araiz... Santcho ikhusi diat lur ziletzen ari zela eliza sahetsean...
- M. Ba, bainan geroztik, mihiakuak ere erran daitak, hil herrien gatik, hobe nuela han ez egitia... Eta geroztik bertze gogorik diat...
- OS. (Il sert à boire son compère)
- A. (L'arrête) Stant à mi-verre) Bon, aski badu hola.
- OS. Zer... Utz-azu, emaztia... Badu baso horrek bere izaria.
- A. Ez tu behar gehiago... Mihiakuak debekatua dako gain-gainetik.
- M. Bai, mihiakuren eta emaztearen eraneri kasu egin izan banik, espaldian lurren hazteko despeitua izanen nindukan...
- OS. Utz-azu emaztia baso hori... To... Edazak ausarki... Heu bouchondatua duk. Ez dauk hunek kalterik eginen (Anna énervée vers la botte. Le mari fait un cailliu keinu à l'adresse de la femme) (Anna retire la bouteille de son bicarbonate de sa botte et la pose sur la table).
- A. Hori, arno horri hunterik nahasteka-ozu...
- OS. Nun deubrutik jali duzu botoila hori... Zer duzu botan horten zure chahia.
- M. Ba, emazte hauk baitie hola bereh sekretuzko gorde lekuak.
- A. (Sèche) Sekretuzko lekuak ba... Gizonek erakutsiak (Elle sort énervée)
- (Ils boivent)
- OS. Errak... Zerbitzu bat egin behar deutak... Ez zokela mihiku shul horri egia kasurik egin, eta muntanzak ithurria, han, lehen tokian...

- M. To Kukutcharren phentzian egingo nian ba...Kukutcharrek kompreni zezan  
I r gostatzen den hola bere buruaren erakustia bozetenene kontra.
- OS. Errak...Hik eta ez diagu egundaiño elgar saldu...Bahakik bozetenene  
ostatuak zer zerbitzu egin daukan...(Confidentiel)  
Errak, eta ondoko egunetan, ithurri hori egiten baduk, han, elizaren sahet-  
sean, ene ostatuaren aintzinean, jendia ithurri hortarat bilduko duk...  
Eta ithurritik ostaturat ere menturaz...Ikhusten duka ondorioa...Hire  
eta ene onetan duk ithurri hora egin dezakan lehen toki hortan.
- M. (Solennel) Ontsa duk...Baduk aski erranik...Komprenitu diat...Komprenitu  
diat...Ene hitza emaiten daiat, ithurria hik nahi dukan tokian izanenduk  
eta bertzere nehon ez...  
Ene hitza hor duk...Eta Okilok hitzemana, hitzemana duk gero...
- OS. To, milesker, gaizoa... Ez nian bertzerik igerikatzen hire ganik...To,  
eda-zak...Hi eta ni, egundaiñoko chorteko adichkideak gitut gerat...  
(Ils trinquent et boivent debout.)
- M. Bon, eta erran bezala, konda zak ene hitzian.
- OS. Ontsa duk...To, botoila ondar hori aski duk atchikitzia afariko...Ta ~~xxxi~~  
sarri artio to...Pasatzien, sar jalitze bat egin-zak.
- M. Ba, muthikoa, ba...Jinen nuk azken berriekin (Ostalero sort)  
(Seul) Ha, beraz orai joan behar dut Santchoren atzemaite rat lehen lehen  
Agian ez tuk segidan Kukutcharrerat joan...Gero berritz...Ha, botoila  
hau gorde dezagun, emaztia jin baino lehen.  
(Il va vers la botte et se ravise) Ez, hor ez...Hori jada arrapatu a dik..  
To, sarri artio hortchet ezarriko diat, palto horren sakelan... (Il va la  
cacherie sous le paletot, sous le regard de sa femme qui est entrée à son  
insu.)
- A. (Furieuse) He ben...baliatu duzu ontsa (Il essaie en vain de cacher sa  
bouteille) Justatu duzu ontsa botoila muthurra? Eta edanaren ondorioak  
nork beharko ditu jasan...Nik...Nik ba nik...Gero, ariko zira intzirika,  
hi hemendik eta ~~la~~ handik... (L'imitant) Mihikua ekazu, mihikua... Ez du ez  
balio arno hori ezin gordez artzia... Hemen pausatuko duzu hori, plazer  
baduzu, hemen erremedioaren ondoan... Hor agerian egonen dira biak... Eta  
ikusiko duzu zoin duzun lehenik hustuko...  
(On frappe)... Ha, oraino ere bertze norbeit... Zu mera sartuz  
geroz, etche madarikatu huntan, ez gira gehiago minuta bat deskantsuan...  
Mera eta merakoa, segur gauza pollitak dira... Nik bethi, bi sosetan sal  
nezakke bat eta bertzea. Joaiten ahal zira idekitzerat... (Elle sort)
- M. (Criant) To, Kukutchar... Zu hemen... Jar zaite.
- K. (Le prenant de haut et déchainé)... Kukutchar ba, Kukutchar hemen. Hala  
uste hina Santcho chakurra ene aunhitzerat igorri-ta, ~~xxxi~~ atnh egin gabe  
egonen nintzala.
- M. Gizona ehti zaite... Esplika gaiten...
- K. Aski esplikaturik baduk hol~~x~~'hola... Hi, aizen bezelako kurkuila... Zer ~~est~~  
uste duk, mera hizala-eta, nahi dukana eginan dukala herrian.
- M. (Se fâchant) Errespeta nezazu, bertzenaz errespeta raziko dut gero ene ~~xxxx~~  
burua... Ikusiko dugu gero echarpa hartzen badut.
- K. Echarpa ba... echarpa... Joare uhal bat ba behar huke hik lepotik, ez  
echarpa ez...
- M. Errazu berritz holakorik... Errazu berritz...
- K. Sar-adi sar ene baratzean, hire ithurri eta mithurrieikin... Ikusiko duk  
zer gostako zaukan...
- M. Zure baratzia herriko lurrian da... Nik hor ithurria nahi dualarik munta-  
tuko duk... nahi dualarik.
- K. Munta zak... Bainan jakintzak hik ithurria muntatzen baduk, izanen direla  
ere boketa ~~muntatuko~~ muntatuko dutenak.
- M. Mun~~te~~aztu nahi duzuna... Ikusiko duzu nor den nagusituko... Eta, orai, zoazi  
kamporat...
- K. Joan nuk... Bainan jakin tzak bertze norbeit ere nik bertze nombeitik

orriko duala.

(Silence, où le maire grogne.)

- MA. (Entrant) Yes... Zer zuen gizon horrek holako ortzian... Ez duzu ba horren baratzean ithurria egiten? (Elle arrive avec le panier à éplucher des pâtes)
- M. Ez... Ez nuen hola egingo... Bainan orai bertzerik izanen da... Kukutcharrek nahi edo ez nahi, ithurria han izanen da. Han... Bere baratzeanen erdi erdian... Irakutxiko diot nik kukutcharri nor den mera herri huntan.
- A. (Il se chausse)
- A. (Glapissant des ha ha ha moqueurs.) Badakizu norbeitek gizon batentzat zer erran zautan behin, ezkontzari buruz, haren berri galde egin-eta?
- M. Zer erran zautzun gizon harentzat?
- A. Gizon hura ez zela ez zaldi eta ez asto...
- M. (Riant lourdement) Beraz mando zela?..
- A. Ez, ez... Ez zen arrunt astoa bezin astoa, ez ~~mak~~ eta ere arrunt zaldia bezen ~~zaiñi~~ abila,.. Bietarik bazuen... Bainan ez zen mandoa... Mandoa baino gutiago zen...
- M. Zer zen ba?..
- A. Hori, orai asto ~~mak~~ eta gero zaldi... Gero zaldi ~~waw~~ eta ondotik berritz asto... eta hola bethi zauzika astotik zaldirat eta zalditik astorat.
- M. Giza gaizoa, bide zuen lan bizitzen eta denen ara egiten ere, hola balinbazen...
- A. Ba, ~~bam~~ bazuen lana bizitzen eta denen ara egiten ere, gizagaizoak... Eta badakizuia nor zen delako gizon hura?
- M. Nor othe?
- A. Ha... (Enervée, elle hausse les épaules) Eta nik behar nuela haren emazte izan.

(Rideau)